

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

## Soilgunetik

M

usikaren mapan badira hiriburuak. Metro karratuko artista kopurua ohikoa baino anitzagoa duten eremuak dira. Dena delakoagatik testuingurua apropos bilakatzen da alegiazko mapa horretan txintxeta bat iltzatzeko. Batzuetan talde jakin batek izugarrizko sona bereganatzen du eta haren inguruko eszena nabarmentzen da, prentsa lagun. Bestetan testuinguru bereziak agintzen du. Adibidez, giro soziopolitiko itogarria izan eta kulturak bere askatasun zirrikituak bilatzen dituenen: raparen hastapenak kasu.

Orokorrean metropolietan loratzen dira hiriburu musikalak (Seattle, Manchester...), baina inoiz ematen da halakorik teoriar horretarako ekosistema egokirik ez duten tokietan. AEBetan, esaterako, ohiko fokoetatik kanpo eszena alternatibok atera dira. Omaha hiriaren altzozan, konparazione, *Saddle Creek* zigiluak ildo polita ireki du, Nebraskako artadietan kontuan hartzeko musika egiten dela erakusteko. Edo Georgia, metal musikaren iturburuaren sukurtsal berria bilaka daitekeena, San Franciskoko *Bay Area* mitikoari lekukoa hartuta.

Eta gurean zer? Ahaztu ETBko eguraldiko mapa berria eta gogoan har Euskal Herria deitzen genuen hori. Non jarriko genituzke



ALEX LARRETXI

gure txintxetatxoak? Bilbon bat akaso? Donostiako aldirietan? Iruñean? Horietan guztietan badago mugimendu moduko bat, nahiz eta oso bateratua ez egon, nahiz eta rockaren egoera katatonikoezia izan “eszena” buruz hitz egiteko. Baina “metropolietatik” kanpo, guk ere baditugu gure Omahak eta Georgiak. Nola azaldu bestela Bidasoa inguruko musikarien maila? Bera, Irun... urtetan eszena berriztagarria izan da eta halatsu jarraitzen du oraindik ere. Bejondeiela.

Baina hiriburuez baino, mapako soilguneez hitz egin nahi nuen nik. Horietako batetik bainator ni. Lekunberrin, Larraunen, ez da inongo rock mugimendurik izan –taldeei dagokienez–. Inguruko ibarretan ere larri, kasu bakanak alde batera. Hamazazpi urte herrian entseatzen eta orain gutxi arte ez dugu pu traste bat inorekin elkarbanatzerik izan. Halabeharrez, gure nerabezaroko erreferentziak ez dira hezur-haragizkoak izan, argazkietan eta disko-azaletan ikusten genituenak baizik. Horregatik poz itzela hartu dut nire herrian talde berri baten sorrera ikusi dudalarik. Ados, Larraun ibaia ez da Bidasoa izango, baina “eszena” bat edukitzeko gutxienez bi talde behar dira, eta orain badugu hori. ■

◀

Poz itzela hartu dut nire herrian talde berri baten sorrera ikusi dudalarik. (...) ‘Eszena’ bat edukitzeko gutxienez bi talde behar dira, eta orain badugu hori

▶

TXANDAN

Andoni Mujika

## Duintasuna



Historia erreala bizitzen nabil egunotan Brasilen, bertatik bertara. Lurrik-gabekoei eman nahian eta

lurrik-gabekoengandik jaso nahian. Atzo, kanpamentu batean izan nintzen, Parana estatuko bazter zabal batean. Negua da hemen eta hotza eta euria ziren atzokoan. Berrogei bat plastikozko etxeetako batean bazkaldu genuen, ederto. Egoera penagarria begi *telebisi-bo* laburretatik begiratu gero, baina duintasunaren begiraturua izateko zortea izan nuen zorionez, zerbaitek eraginda. Ondorio errazera iritsi nintzen: duintasuna ez du gizarte-mailak bermatzen, ezta ematen ere. Duintasuna

identitateak ematen du, atzokoan, pobre organizatuen nortasunak. Identitatea irizpide propioa izatea da eta *pertenentzia* ere bada, bai, biak batera.

Atzo, euren interesetatik haratago doan proiektu zabala eta eskuzabala zuten oso pertsona pobreak ikusi nituen antolatuta. Nortasuna eta proiektua, gainera eskuzabala. Ez nekien duintasuna zen identitatearen ondorio, ezauzgarri edo baldintza eta ez du inporta. Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduak, beste leku batzuetan baztertutako poltsa baino ez liratekeenei, identitatea ematen die. Akatsekin? Ba bai, akatsik gabekoen mugimenduak ez baitu ezer ematen, akatsik ere ez. ■